

Barrero esi daigun ludijaren gerrija.  
Ez bitsez, ez indarrez, gogayakaz baño.  
Itxaruak berua euzkotarren ontzija  
Goguak nausi diran argitasun goiraño.

(Lauaxeta, "BIDE BARRIJAK", Itxasora, 146. orrialdea. - Bilbo, 1931)

Λόγος δυνάστης μέγας ἐστίν  
(Gorgias, "Helena" 8-9)

1  
0

Σ Α Ρ Η Ο

(olerkiak)

εἰς τὴν ἐλευθερίαν  
τῆς πατρίδος

JON GOTZON ETXEARRIA

Σ Α Ρ Η Ο

(olerkiak)

εις τήν ἐλευθερίαν  
τῆς πατρίδος

liburu-sorta

GERNIKA



© Jon Gotzon Etxebarria

Legezko Gordailua: BI-509-89

-----  
LANKOPI-Colón de Larreategi, 16-BILBO

SAPHO

(635. K.a.)

Lesbos uharteko Eresos-en jaioa. Mitilene-ko bere etxean neskatxa talde bat bildu omen zuen musika eta dantza erakutsiz. Jainkoen jaiak, Aphrodita-renak batipat ospatzen zituzten elkarrekin.

Inguruko eta urrutiko hirietatik e-tortzen zitzaizkion hezkuntza hartzeko beragandik. Eta benetan maitezituen denak; olerki askotan haienganako emozioa azaltzen du, edo bat

urrundu delako edo epeldu egin dela-  
ko zion maitasuna.

Handikien alabak elkartzen ziren le-  
ku hauek *Thiasoi* batez ere ez-  
kontzarako gertakuntza eskaintzen  
zieten.

Merkatari aberastu berrien handikien  
aurkako matxinada zela eta, agintean  
hartukizuna eta denentzako lege ida-  
tzi egokiak nahi bait zituzten, hiri-  
tarren arteko gudua sortu zen, betiko  
ondorio latzekin. Alzeo olerkariaren  
lanetan arazo horrekiko aztarnak a-  
geri dira. Sapho-k, berriz, bestelako  
ardurak erakusten ditu olerkietan:

maitasunaren alderdi alai-mingotsak,  
soil soilik. Hortan izan zen entzute  
handikoa herrialde eta garai askotan  
nahiz eta ahaztuxea egon batzutan, i-  
zen handia gorabehera.

Estrabon-ek "zerbait zoragarria" eta  
Sokrates-ek "ederra" zela (berak bere  
burua "beltz-txikitzat" bazuen ere)  
aitortu zuten. Platon-ek, aldiz, hamar-  
garren Musatzat hartu zuen.

Andre ezkondua; alaba bat ere bazuen,  
Kleis izenekoa. Pizkunde aldian bere-  
ziki haren "*lesbianismoari*" bu-  
ruzko esamesak eta eritziak zabaldu  
eta errotu ziren.

Neurtitzetan hark erabilitako metro-  
ek ere eragina izan zuten ondorengo-  
etan.

Hona hemen *Wolfgang Schadewaldt*-ek  
bere liburuan aipatutakoen arteko-  
rik ospetsuena:

La "estrofa sáfica", que toma su nombre de la poetisa, consiste en tres "endecasílabos sáficos", el último ampliado por el "adonio".

— — — — —  
*Poikilóthron' áthanal' Aphrodíta,*  
— — — — —  
*pat Diós dolóploke, lissomai se,*  
— — — — —  
*mé m'asalsi méd' oniatzi dáмна pótnia thymon.*

Hay mucho que agregar, en total es una serie de estructuras rítmicas muy delicadas. Su característica es una movilidad cambiante.


(122. orrialdea)

*Sappho*, Eduard Stichnote, Potsdam,  
1950.

Gaztelaniazko itzulpena:

*Safo, Mundo y poesía, existencia en  
el amor*, Editorial Universitaria de  
Buenos Aires, 1973.

Jon Gotzon Etxebarria  
Gernika  
1989



Aéobos      uhar tean  
 Sapho-ren    sorleku  
 eta    bizi-lekuak:  
 Ἐρεος, Μιτυλήνη.

O E P O  
 o l e r k i a k

ποικιλόθρον' άθανάτ' Αφρόδιτα,  
παί Δίος δολόπλοκε, λίσσομαί σε,  
μή μ' έσσαισι μηδ' όνίαισι δάμνα,  
πότνια, θυμόν'

άλλά τειδ' έλθ', αί ποτα κάτέρωτα  
τάς έμας αυδας άλοισα πήλοι  
έκλυες, πάτρος δέ δόμον λίποισα  
χρύσιον ήλθες

άρμ' ύπαδέυξαισα' κάλοι δέ σ' άγον  
ώκεες στρουῖθι περι γάς μελαίνας  
πύκνα δίνεντες πτέρ' άπ' ώράνωίθε-  
ρος δια μέσσω,

αίψα δ' έξίκοντο' σὺ δ', ὦ μάκαιρα,  
μειδιαίσαισ' άθανάτωι προσώπωι  
ήρε' όττι δηῖτε πέπονθα κῶττι  
δηῖτε κάλημμι,

κῶττι μοι μάλιστα θέλω γένεσθαι  
μαινόλαι θυμωι' τίνα δηῖτε πείθω  
δψ σάγην ές σάν φιλότατα; τίς σ', ὦ  
Ψάπφ', άδικήει;

Aphrodita hilezkorra, agintaulki ko-  
loretsua duzuna, Zeus-en alaba ziri-  
sartzailea, arren dagizut, ez zigortu  
nire gogo, ugazabandra horrek, oinaz-  
ez eta kezkaz.

Aitzitik, erdu hona, behinola nire ei-  
agorak urrundik entzunik, aitaren u-  
rrezko etxea utzita etorri bazinen  
zure gurdian jezarrita, eta artatxori  
polit-arinek, jira-bira hegazka, eram-  
an bazintuzten lur beltzaren gain e-  
ta egurats-erditik.

Berehala heldu ziren. Zuk, berriz, arp-  
egi arrai, irribarrez, jainkosa horr-  
ek, galdetu zenidan zein gaitz ote  
nuen oraingoan eta zergatik dei egin  
nizun berriro,

eta ea zer nahi nuen ene gogo zora-  
biatuan lortu.

Nor nahi duzu orain zure maitatzera  
bultzatzea? Nork mintzen zaitu, Sapho?  
Gaur ihes badabilkizu, laster dukezu  
bilaka. Hartzen ez baditu, opariak e-  
gingo ditu; maitatu ezean laster mai-  
teko zaitu, gura ez badu ere.

Zatozkit orain, nire antsia larritik  
askatuz, eta eman nire gogoak opa di-  
tuenak. Zakizkit lagun borroka-ald-  
ian.

καὶ γὰρ αἱ φεύγει, ταχέως διώξει·  
αἱ δὲ δῶρα μὴ δέκετ', ἀλλὰ δώσει·  
αἱ δὲ μὴ φίλει, ταχέως φιλήσει  
κῶυκ ἐθέλοισα

ἔλθε μοι καὶ νῦν, χαλέπαν δὲ λῦσον  
ἐκ μερίμναν, ὅσσα δέ μοι τέλεσσαι  
θῦμος ἱμέρρει, τέλεσον· σὺ δ' αὐτὰ  
σύμμαχος ἔσσο.

(1, LP)





φαίνεται μοι κῆνος ἴσος θεοῖσιν  
 ἔμμεν' ὦνηρ, ὅττις ἐναντιός τοι  
 ἰσodάνει καὶ πλάσιον ἄδου φωνεί-  
 σας ὑπακούει

καὶ γελαίσας ἡμέροεν, τό μ' ἦ μάν  
 καρδίαν ἐν στήθεσιν ἐπτόαισεν'  
 ὥς γάρ ἔς σ' ἴδω βρόχε', ὥς με φώναι-  
 σ' οὐδ' ἐν ἔτ' εἴκει,

ἀλλ' ἄκαν μὲν γλῶσσα ἔαγε, λέπτον  
 δ' αὐτικά χρωὶ πῦρ ὑπαδεδρόμηκεν,  
 ὀππάτεσσι δ' οὐδ' ἐν ὄρημ', ἐπιρρόμ-  
 βεισι δ' ἄκουαι,

κάδ δέ μ' ἴδρωσ ψυχρός ἔχει, τρόμος δέ  
 παῖσαν ἄγρει, χλωροτέρα δέ ποίας  
 ἔμμι, τεθνάκην δ' ὀλίγω 'πιδεύης  
 φαίνομαι

(31 LP)

Jainkoen antzeko iruditzen zait zure  
 aurrean jezarritako gizona, gozoki  
 mintzatzen eta maiteki barre egiten  
 entzuten zaituena.

Horrek ez dit bihotza asaldatzen bu-  
 lar-barruan; une batez zuri begiratu  
 gero, ezin dut hitzik atera; mihia lo-  
 tu egiten zait; behingoan su mehea  
 larru-azpitik dabilkit, begiek ez da-  
 kusate ezertxo ere eta belarriak bu-  
 rrunbadaka, izerdi hotzez nago, ikara  
 batek naizen hau astintzen nau eta  
 belarra baino zuriskago nago eta ba-  
 dirudi hiltzeko gitxi falta zaidala.

οἱ μὲν ἱππῶν στρότον οἱ δὲ πέσδων  
οἱ δὲ νάων φαῖσ' ἐπ[ι] γᾶν μέλαι[ν]αν  
ἔ]μμεῖναι κάλλιστον, ἔγω δὲ κῆν' ὄτ-  
τω τις ἔραται'

(16 LP)

Zaldizkoen eta oinezkoen edo ontziz-  
koen samalda lur-gainekorik ederrena  
omen.Nik,berriz,diot:Norberak maite  
duena.

νῦν δὲ Λύδαισιν ἐμπρέπεται γυναί-  
 κεσσιν ὧς ποτ' ἀελίῳ  
 δύντος ἅ βροδοδάκτυλος μήνα

πάντα περρέχοισ' ἄστρα· φάος δ' ἐπί-  
 σχει θάλασσαν ἐπ' ἄλμύραν  
 ἴσως καὶ πολυανθέμοις ἀρούραις·

(96 LP)

Orain lidaisitar andreen artean na-  
 barmentzen da, eguzki sartukeran, ila-  
 rgi hatzamar larrosadunak beste izar  
 guztiei gehiago egiten dien antzera.  
 Eta bere argia itsas-kresalaren gain  
 eta zelai loretsuen gain hedatzen  
 da.

ὅτινας γὰρ  
 εὖ θέω, κῆνοί με μάλιστα πάντων  
 [        ] σίνονται.

(26-2-4LP)

"Ἔρος δ' ἐτίναξέ μοι  
 φρένας ὡς ἄνεμος κάτ' ὄρος δρύσιν ἐμπέτων.

(47 LP)


Nik ondo gura diedanek, horietzek ge-  
 hiena kalte egiten didate.

Eros-ek anima iharrausi zidan, mendi-  
 an zuhaitzetan jotzen duen haize an-  
 tzo.

κατθανοῖσα δὲ κείσῃ οὐδέ ποτα μναμοσύνα σέθεν  
 ἔσσειτ' οὐδ' ἴα τοῖς ὕστερον· οὐ γάρ πεδέχῃς βρόδων  
 τῶν ἐκ Πιερίας· ἀλλ' ἀφάνης κὰν Ἄϊδα δόμῳ  
 φοιτάσῃς πεδ' ἀμαύρων νεκύων ἐκπεποταμένα.

(55 LP)

Hilez gero atsedenduko.Ondorengoek  
 ez dukete zutaz oroimenik,txikerren-  
 ik ere ez.Pieiria-ko larrosetan har-  
 tukizunik ez bait duzu.Hades-en ego-  
 itzan bertan ahaztua,hara ezkeru hi-  
 ldako ikusiezinen itzalekin.



— LESBOS  
Sapho-ren sorlekua.

οὐκ οἶδ' ὅτι θεῶ' δίχα μοι τὰ νοήματα.

(51 LP)



Ez dakit zer nahi dudan:pentsamentu  
bikoitzez ari naiz.



κατάνην δ' ἡμέρος τις [ἔχει με και  
 λωτίνοις δροσόεντας [δ-  
 χ[θ]οις ἴδην Ἄχερ[

(95,11-13 LP)

ἀλλά τις οὐκ ἔμμι παλιγκότων  
 ὄργαν, ἀλλ' ἀβάκην τὰν φρέν' ἔχω.

(120 LP)

Hiltzeko gogo batek hartua nago, eta  
 lotoak intzez ikusteko Akeronte-n.

Ni, aldiz, ez naiz zoritxarreko hase-  
 rrekor horietariko; anima patxadats-  
 ua darabil.



ἄλλ' ἔων φίλος ἄμμι  
 λέχος ἄρτυσο νεώτερον'  
 οὐ γὰρ τλάσομ' ἔγω συνοί-  
 κην ἔοισα γεραιτέρα...

(121 LP)

δαύοιο' ἀπάλας ἐτάρας ἐν στήθεσιν

(126 LP)

Ene adiskide bazara,bilatu maitasun  
 gazteagoa;ez bait naiz ausartuko ez-  
 kontzera zahar samarra izaki.

Neska samurraren bularrean lo.

Ἔρος δηδῆ μ' ὁ λυσιμέλης δόνει  
γλυκύπικρον ἀμάχανον ὄρπετον.

(130 LP)

Berriro Eros lasaitzaileak aztoratz-  
en nau,gozo-mingots,pizti horrek.

αἰ δ' ἦχες ἔσλων ἡμερον ἢ κάλων  
 καὶ μή τί τ' εἶπην γλῶσσ' ἐκύκα κάκον,  
 αἰδῶς κέν σε οὐκ ἦχεν ὄππα-  
 τ' ἄλλ' ἔλεγες περὶ τῶδικαίως.

(137 LP)

Irrika garbi-ederra bazenu eta min-  
 gainean berba txarrik ez bazenu, her-  
 abeak ez lizkizuke lausotuko begiak;  
 aitzitik, zure eskaria azalduko zenu-  
 ke.

γλύκηα μάτερ, οὔτοι δύναμαι κρέκην τὸν ἴστον,  
πόθῳ δάμεισα παῖδος βραδίναν δι' Ἀφροδίταν.

(102 LP)

ἔστι μοι κάλα πάις χρυσοῖσιν ἀνθέμοισιν  
ἐμφέρην ἔχουσα μόρφαν Κλείς ἀγαπάτα,  
ἀντι τᾶς ἐγῶδὲ Λυδίαν παῖσαν οὐδ' ἐράννασιν

(132 LP)

Ama gozoa,ezin dut eho ene oihala.  
Maitearen irrikaz nago,Aphrodita ez-  
titsuaren menpean.

Maite bat dut maitagarria,urrezko  
lorenz apaindua,Kleis laztana.Beraga-  
tik emango nuke ene Lidi maite osoa.

οὐ γὰρ θέμις ἐν μοισσοπόλων  
θρῆνον ἔμμεν· οὐ κ' ἄμμι τάδε πρέποι.

(15o LP)

Ἔσπερε πάντα φέρων ὄσα φαίνολις ἐσκέδασ' Ἀῶς,  
φέρεις διν, φέρεις αἶγα, φέρεις ἄπυ μάτερι παῖδα.

(104a LP)

Temis, Musen egoitzan ez jo hiletarik; gurean ez da egoki.

Artizarra, goizalde argiak sakabana-  
tuak oro biltzen dituzuna; batu ardi-  
a, batu ahuntza; alaba, berriz, amagan-  
dik aldentzen.

οἶον τὸ γλυκύμαλον ἐρεύθεται ἄκρω ἐπ' ὕδασι,  
 ἄκρον ἐπ' ἀκροτάτῳ, λελάθοντο δὲ μαλοδρόπης·  
 οὐ μὲν ἐκλελάθοντ', ἀλλ' οὐκ ἐδύναντ' ἐπίκεσθαι

(105a LP)

Adar-puntaren puntan dagoen sagar  
 gorria antzo:biltzaileek ahazturik  
 zuten;ez,ahaztu ez,baizik eta ezin  
 eskuratu.

ὄλβιε γάμβρε σοὶ μὲν δὴ γάμος ὥς ἄραο  
 ἐκτετέλεσθ', ἔχῃς δὲ πάρθενον ἄν ἄραο...  
 σοι-χάριεν μὲν εἶδος, ὄπιπτα δ'...  
 μέλλιχ', ἔρος δ' ἐπ' ἰμέρτωι κέχυται προσώπωι  
 . . . . . τετίμακ' ἔξοχά σ' Ἀφροδίτα.

(112 LP)

Ezkongai zoriontsu,zuk nahi bezala  
 izan dira ezteiak.Zure gogoko andre-  
 gaia baduzu.Betarte atsegina duzu,  
 bai,baina zure maitearen begiak ez-  
 tia bezalakoxeak eta maitasuna dara-  
 kus arpegi atsegingarrian.Aphrodita-  
 k bikainki ederretsi zaitu,bai ho-  
 rixe.

(νύμφη). παρθενία παρθενία ποῖ με λίποις' ἀποιχίη;  
 (παρθενία). οὐκέτι ἤξω πρὸς σέ οὐκέτ' ἤξω.

(114 LP)

τίωι σ' ὦ φίλε γάμβρε κάλως εἰκάσδω;  
 ὄρπακι βραδίνωι σε μάλιστ' εἰκάσδω.

(115 LP)

(*neskatxa*): Birjintasuna, birjint-  
 asuna, zergatik ni utzirik alde egin  
 zenuen?

(*birjintasuna*): Ez natzaizu atze-  
 ra etorriko, ez.

Ezkongai maitea, zuretzat zein itxu-  
 rarik ederrena? Zurtoin bigunaren an-  
 tzeko izatea, zure itxurarik ederre-  
 na.



AIPATU PERTSONEN

ETA LEKUEN

izenak

orrialdeak

Akeronte(hildakoen herrira heltzeko zeharkatu beharr- eko ibaia).....	29
Aphrodita(grekoen artean, maitasunaren jainkosa)....	11-37-43
Eros(maitasunaren jainkoa)...	21-23
Hades(hildakoen jainkoa).....	23
Kleis(Sapho-ren alaba).....	37
Lidaistarrak.....	19
Lidia(Asia Txikiko herri- aldea antxinatean).....	37
Musak.....	39
Pieira.....	23
Temis(Urano eta Gea-ren a- laba,Zuzenbidearen eta be- tidaniko Legearen eredua).....	39
Zeus.....	11